## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

## Zk-6403

EBAZPENA, 2004ko abenduaren 7koa, Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordearena: Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak 2004 ekitaldiko Etortek programaren barruan ikerketa estrategikoa egiteko ematen dituen laguntzak gehitu direla jakinarazten da.

Ikerkuntza estrategikoei laguntza emateko «Etortek Programa» arautu zuen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2002ko urriaren 7ko Aginduak. Agindu hori aldatu egin zen 2003ko apirilaren 16ko Agindu baten bidez.

Agindu horren 9. artikuluak dioenarekin bat etorriz, Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordearen ebazpen batez, deialdia egin zen 2004 urtean Etortek programaren barruan Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak ikerkuntza estrategikorako ematen dituen laguntzak jasotzeko. Deialdi hori martxoaren 1eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Kontuan hartuta Etortek programaren barruan aurkeztu diren laguntza-eskabideak eta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak aurrekontuetan erabilgarri dituen baliabideak, egoki iritzi zaio 2004 ekitaldirako programan ezarritako funtsak gehitzeari.

Horregatik, deialdia egin zuen ebazpenaren 1. artikuluan ezarritako ahalmenaz baliatuta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen urriaren 16ko 223/2001 Dekretuan xedatutakoaren arabera, hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.–*** Etortek programako laguntzak jasotzeko 2004ko deialdiaren ebazpenean (martxoaren 1eko EHAA) aurreikusitako diru-baliabideak 18.250.150,00 eurora arte gehitzea, honela banatuta: 2004 ekitaldirako 5.616.150,00 euro, 2005 ekitaldirako 6.634.000,00 euro, eta 2006 ekitaldirako 6.000.000 euro; betiere, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste programa batzuk gauzatzerakoan agortu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera.

***Bigarrena.–*** Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari,

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

## N°-6403

RESOLUCIÓN de 7 de diciembre de 2004, del Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial, por la que se hace público el aumento de los recursos destinados para la concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo para la investigación estratégica en el marco del «Programa Etortek», para el ejercicio 2004.

La Orden de 7 de octubre de 2002, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, modificada por la Orden de 16 de abril de 2003, regula el «Programa Etortek» de ayudas a La investigación estratégica.

De conformidad a lo establecido en el artículo 9 de la citada Orden, el Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial dictó resolución, publicando la convocatoria en el BOPV de 1 de marzo, para el ejercicio 2004, de concesión de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo a la Investigación Estratégica en el marco del «Programa Etortek».

Teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, dentro del Programa Etortek, y en función de las disponibilidades presupuestarias del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, procede realizar un incremento de los fondos destinados a las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2004.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 1 de la resolución de convocatoria, en relación con lo dispuesto en el Decreto 223/2001, de 16 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Comercio y Turismo

RESUELVO:

***Primero.–*** Incrementar hasta un total de 18.250.150,00 de euros, los recursos económicos previstos en la resolución de convocatoria de 2004 de ayudas en el marco de Programa Etortek, publicada en el BOPV de 1 de marzo, para el ejercicio 2004, quedando desglosados de la siguiente manera 5.616.150,00 de euros para el ejercicio 2004, 6.634.000,00 de euros para el ejercicio 2005 y 6.000.000 de euros para el ejercicio 2006, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

***Segundo.–*** Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en

hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko abenduaren 7a.

Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de diciembre de 2004.

El Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### Zk-6404

EBAZPENA, 2004ko abuztuaren 12koa, Garapen Laguntzarako zuzendariarena, «Generar La Paz, Reconstruir Sociedades» proiektuaren aurrekontua murriztea onartzen duena. Unesco Etxea Kultura Elkarteak aurkeztu zuen proiektua, Garapenean Lankide Izateko eta Laguntzeko Fondoren konturako 2002ko deialdiaren barruan.

Garapen Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kontura proiektuei 2002. ekitaldian laguntzak emateko deia egiten duen eta laguntza horiek arautzen dituen uztailaren 9ko 171/2002 Dekretuak honela dio 28. artikuluaren 1. paragrafoan: erakunde eskatzaileak jarduera gauzatzerakoan sartu nahi dituen aldaketen berri aldez aurretik emango dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari eta, aldi berean, aldaketa horiek aurrekontuan izango duten eragina zehaztu beharko du. Proposatutako aldaketak onartzea, bestalde, Garapen Lankidetzarako zuzendariaren eginkizuna da.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduz 97.620,71 euroko diru-laguntza esleitu zitzaion Uneso Etxea Kultur Elkarteari «Generar La Paz, Reconstruir Sociedades» proiekturako.

Aipatutako entitateak, 2004ko abuztuaren 10ean, aurrekontua murrizteko eskabidea egin zion, idazki baten bidez, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Aurreneko fase batean hiru diagnostiko programatu ziren: EAE, Katalunia eta Madrilgo Erkidegoa. Kofinantzatu egin nahi zen proiektua, baina ez da lortu; beraz, EAEko diagnostikoa baino ezingo da gauzatu, batik bat «bidaiak eta egonaldiak» eta «kontratazioak» partidak murriztuz. Proiektuaren azkeneko fasea ere aldatu da: murriztu egin dira programatutako topaketak, hiru izan beharrean bi izango baitira; eta ponenteak ere ez dira hamabost izango, sei baizik, aipatu bi partidei ere eraginez. Hori horrela, diru-laguntzak 58.258 euro jotzen du.

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### N°-6404

RESOLUCIÓN de 12 de agosto de 2004, del Director de Cooperación al Desarrollo, por la que se aprueba la reducción del presupuesto para el proyecto «Generar La Paz, Reconstruir Sociedades» presentado por la entidad Asociación Cultural Unesco Etxea dentro de la convocatoria de ayudas a proyectos con cargo al Focad 2002.

El apartado 1 del artículo 28 del Decreto 171/2002, de 9 de julio, que regula y convoca ayudas a proyectos con cargo al Fondo para la Cooperación y Ayuda al Desarrollo para el ejercicio 2002, establece que, la entidad solicitante informará previamente a la Dirección de Cooperación al Desarrollo de las modificaciones que pretenden introducirse en la realización del proyecto especificando las repercusiones presupuestarias que implican. Corresponde a la Dirección de Cooperación para el Desarrollo aprobar las modificaciones propuestas.

Por orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se concedió a la entidad Asociación Cultural Unesco Etxea una subvención de 97.620,71 para el proyecto Generar La Paz, Reconstruir Sociedades.

La citada entidad, en comunicación dirigida a la Dirección de Cooperación al Desarrollo con fecha 10 de agosto de 2004, formuló una solicitud de reducción presupuestaria. Se había programado una primera fase con la realización de tres diagnósticos (País Vasco, Cataluña y Comunidad de Madrid). Para esto estaba prevista una cofinanciación que no se ha conseguido, con lo que solo se realizará el diagnóstico del País Vasco reduciendo las partidas de «viajes y estancias» y contrataciones «contrataciones» principalmente. También se ha modificado la última fase del proyecto, reduciéndose la duración de los encuentros programados, de tres a dos días de duración, reduciéndose igualmente el número de ponentes de quince a seis, afectando igualmente a las dos partidas mencionadas. Con todo ello, la subvención que se desembolsará queda reducida a 58.258 euros.